



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK

30. buletina (2006ko martxoaren 23an argitaratua)

- **Laburpena:**

1. 1. eta 2. HE egiaztatzeko proben aparteko deialdia
2. **Administrariak aldi baterako kontratatze zerrendak handitzea**
3. **Aldi baterako kontratazio zerrenden kudeaketan sartzea udalaren web-orriaren bidez.**

- **Zehaztapenak:**

1. 1. eta 2. HE egiaztatzeko proben aparteko deialdia

Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkariaren 2005-03-15eko ebazpenaren bidez, honakoa erabaki da:

1.- Vitoria-Gasteizko Udalean HEak egiaztatzeko aparteko deialdiaren baldintzak onartzea.

2.- Eskabideak aurkezteko epearen barruan ondoren adierazten den egoeretako batean daudenak aurkeztu ahalko dira:

* Vitoria-Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoaren Saileko Hautaketa Atalaren indarrean dauden aldi baterako kontratazioen zerrendan dauden pertsonak.

* Vitoria-Gasteizko Udalean aldi baterako kontratatuak edo izendatuak dauden pertsonak, nahiz eta indarrean dauden zerrendetan ez egon.

3.- Probak 1. eta/edo 2. HEa egiaztatzeko izango dira

4.- Eskabideak aurkezteko epea 2006ko apirilaren 20an amaituko da.

Parte hartu nahi dutenek, Herritarrei Laguntzeko Bulegoetako edozeinetan aurkeztu beharko dute eskabidea, zeinetan dauden zerrenda edo betetzen duten lanpostua baita zein probatara aurkeztu nahi duten ere adierazi beharko baitute.

Onartu eta bazter utzitakoen zerrenda eta probak egingo diren datari buruzko argibideak maiatzaren 16an izango dira Herritarrei Laguntzeko Bulegoan, 010 telefonoan eta www.vitoria-gasteiz.org orrian.

Kontratazio zerrendei buruzko argibideak eskatzeko telefono zenbakiak: 945161653; 945161956

2. **Administrariak aldi baterako kontratatze zerrendak handitzea**

Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariaren 2005eko martxoaren 7ko ebazpenaren bidez, Aldi Baterako Kontratazio Zerrendaren Jarraipen Batzordeak hala proposatua, Administrariak aldi baterako kontratatzeko zerrenda handitzea erabaki zen.

Indarrean dagoen ADMINISTRARIAK, HIZKUNTZEKIN zerrendako pertsonekin egingo da lehen handitze-txanda. Indarrean dagoen ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAK zerrendako pertsonekin egingo da bigarren handitze-txanda.

Gutuna bidali zaie interesatuei informazio horren berri emateko, eta hartara beren egoera eguneratu dezaten dagokien zerrendan.

3. Aldi baterako kontratazio zerrenden kudeaketan sartzea udalaren web-orriaren bidez.

Herritarrei beren kontsulta eta kudeaketak berehalakoan eta modu erosoan egiteko aukera ematen dien zerbitzua da **udala on-line**. 26. buletinean jakinarazi zenez, 2006ko urtarrilaren erdialdetik, eta identifikazio digitaleko txartela baliatua, Aldi Baterako Kontratazio Zerrendaren inguruko zuzemenak burutu daitezke www.vitoria-gastezi.org helbidean.

Sarbideak:

- Lehenengo orrian, bilatu: kontratazio zerrendak eta sartu
- Web maparen bidez>Udala on line>nire kudeaketak>kontratazio zerrendak
- Web mapan>Enplegua eta prestakuntza>UDALAREN ENPLEGU ESKAINTZAK>kontratazio zerrendak

Gaur egun sistemak aukera ematen du jakiteko norbera zein zerrendatako kide den, identifikazio datuetan aldaketa egiteko baita parte hartzeko parametroetan eta aldi baterako alta edo baja eskatzeko ere.

Zerrendaren batean hasierako egoeraren formalizazioa, zeinaren kudeaketa Funtzio Publikoaren Sailaren bulegoetara joanda burutuko baita eta amaierarik gabeko kontratua denean, bertaratua edo telefonoz egingo dena, bestelakoak norberak egin ditzake.

Apirilaren 15etik aurrera aukera izango da norberaren egoera ezagutzeko balizko kontratu baten ezaugarrien arabera.

Aldi baterako kontratazio zerrendetako kideei gogorarazten zaie Funtzio Publikoaren Sailean – San Prudentzio kalea 34, 3. sol.– eska dezaketela txartela, 8:30etik 14:00etara bitartean (aldean eraman nortasun-agiria).

Gero postaz bidaliko die eskatzaileei **“Izenpe”** enpresa egiaztatzaileak **kodeak jasotzen dituen gutuna**. Txartela, berriz, norberak jaso beharko du, nortasun-agiria eta “Izenpe”k bidalitako gutuna aurkeztuz. Bertan, **txartelarekin batera**, hura **erabiltzeko arauak** biltzen dituen karpeta, txartel **irakurgailua** (familia bakoitzeko bana) eta **instalatzeko CD-rom bat** emango diote eskatzaileari.

Etiket bertatik, irakurgailua instalatu ondoren, edo irakurgailua duen beste edozein ordenagailutik, hainbat eragiketa egin ahal izango dira txartela sartuz. Ordenagailurik ez dutenei aukera hori emateko, berriz, txartel irakurgailua duten ordenagailuak jarri dira KZgunea duten gizarte etxeetan.

- Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 17 98)
- Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>
- Aurretik argitaratutako beste agiri batzuk:

Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia.

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org
seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org

**HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**